

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa



Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz Ebaluaziorako datuak

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

“ Herritarren Partaidetzaren alorrean, herritarrentzat ez, baizik eta herritarrekin ELKARLANEAN garatzen dira balio publikoa sortzeko prozesuak ”

1. [Testuinguruan kokatzea.](#)
2. [Helburuak eta horiek lortzea](#)
 - Lidergo politikoa eta udal talde desberdinen arteko adostasuna.
 - Zeharkakotasuna
3. [Prozesuaren plangintza, faseen diseinu teknikoa, denboraren banaketa eta egokitzapena](#)
4. [Komunikazioa](#)
5. [Herritarren parte-hartzea zenbakietan](#)
6. Parte-hartzaileen ordezkagarritasun soziodemografikoa
7. [Herritarren erabakitze-marjinak](#)
8. [Parte hartzeko kanalak](#)
9. [Baliabideak](#)
 - Proiektuari atxikitako giza baliabideak
 - Baliabide ekonomikoak
10. [Pluralismoa](#): prozesuan ordezkaturuta dauden taldeen era askotako interesak eta antolamendu mailakoak
11. [Aurrekontuaren heziketa-ahalmena, herritarren partaidetza-kulturan duen eragina](#)
12. Beste Adierazle batzuk

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

1. Testuinguruan kokatzea.

Aurre Analisi honen helburua Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa bere esparruan kokatzea da eta, oro har, programa gauzatzearekin loturiko datuak ezagutzera ematea. Prozesuaren fase desberdinak nola gauzatu diren eta zer emaitza lortu diren ezagututa, prozesu hori ebaluatzeko tresna bat izan dadila lortu nahi da. Prozesu hori herritarrentzat diseinatu eta sortu bazen ere, orain da garaia herritarrekin batera prozesu hori hobetzeko eta sendotzeko.

- **Programa berri** baten aurrean gaude, **izaera esperimental**a duena, eta horrexegatik, funtsezko tresna gisa ikusten dugu ebaluazioa, esperientzia zehatzen bidez hurrengo edizioetan nola aurrera egin dezakegun balioesteko aukera emango diguna.
 - Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa, beraz, **ikaskuntzarako tresna bat da, bai herritarrentzat eta bai udalarentzat berarentzat ere.**
 - **Ebaluazioaren helburu nagusia**, arestian adierazitakoarekin bat etorriz, **ezarpenerako programa eta hobekuntzarako aukerak zehaztea izango da.** Alegia, ebaluazio honen xede nagusia programaren kudeaketarako eta etorkizuneko definiziorako erabilgarria izango den atzera-elikadura eskaintzea da.
- Arestian adierazitakoaren ildotik, MVGH **programa konplexua** da, hain zuzen ere, “denborak”, eskura genituen baliabideak eta lortu nahi zen partaidetza maila kudeatu beharrak premia edo zailtasun batzuk sortu dizkigulako eta horien arabera egokitu eta “eraiki” behar izan dugulako kudeaketa. Informazioa eta komunikazioa kudeatzeaz gain, beharrezkoa izan da beste hauek ere kudeatzea:
 - **ziurgabetasuna**, hain programa zabalari ekiten genion lehen aldia zelako.
 - **konfiantza**, maila eta esparru askotako herritarrak eta sail gehienetako teknikariak mugiarazi behar izan dituelako.
 - **inertiak**, gauzak “beti egin izan diren moduan” egin behar direla ezartzen duten jarrera nahiz jokabideetan.

Testuinguru honetan, ebaluazioaren eginkizuna programa “konplexua” dena **programa “konplikatu”** bihurtzea da, hau da, parte-hartzearen maila bera izan dezala, baina kudeaketaren inguruko zalantzak gutxitzea, inertiak gainditzea eta lortu den konfiantzaren gainean eraikitzea, irizpideak, urratsak, araudiak eta abar sistematizatuz.

- **Zeharkakotasunerako joera** duen programa bat da, eta hori sakontzen jarraitu beharko dugu, **udal eskumeneko arlo guztien konplizitatea eta konpromisoa** erdietsi arte.
- Programaren garapenean aurreikusitako epeak betetzearen denborak eta lana bizkortu beharra izan da, kontuan izanik, gainera, une horretan Parte-hartzerako Zerbitzuak lan hori Partaidetza Planaren proposamen berriak abian

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

jartzearekin batera tartekatzen zuela (elkarguneak, auzoguneak, herritartasunerako eskola, kontsulten araudia...).

2. Prozesuaren helburuak eta tipologia

PROZESU HONEKIN LORTU NAHI ZENA:

Orain arte gure udalerrian ez dugu izan demokrazia zuzeneko esperientziarik, udal aurrekontuaren parte bat zertarako erabiliko den aukeratzea herritarren esku utzi duenik. Aurrekarietako bat Zure Auzoa Hobetuz programa dugu, nahiz eta Bide Publikoko lanetara bideratua eta erabakitzeko ahalmena auzo-elkarteetara mugatua egon.

Horregatik, herritar guztiei zabalik dagoen metodologia parte-hartzaile bat esperimentatu nahi genuen, 2017ko udal aurrekontuan 3 milioi euro arteko gastua duten proiektuak lehenetsiko dituen, gutxienez 6 proiekturen bidez.

Prozesuaren diseinua baldintzatuta geratu zen hasierako datengatik, eta halaber, 2017ko aurrekontu-proposamena prestatu aurretik proiektu horiek aukeratuta geratu behar zutelako.

JARDUEREN HELBURUAK

- **Herritarren parte-hartzea udal aurrekontuan barneratzeko prozesu horretan, talde politiko gehien adostasuna eta babesa erdiestea.**
- **Metodologia bat esperimentatzea, erreferentziak eta partaidetza bidezko ebaluazioa abiapuntutzat harturik, aurrekontuaren barruan herritarren parte-hartzea antolatuko duen behin betiko metodologia landuko duena.**
- **Herritarrek, hautematen dituzten premiak oinarritzat harturik, zuzenean erabaki dezatela zertarako erabiliko diren 3 milioi euro, udalaren eskumeneko eremu desberdinetan proposamenak gauzatzeko orduan.**
- **Herritarrentzako esperientzia motibatzaile bat erdiestea, parte hartzen eta udal aurrekontuak ezagutzen jarraitzeko konfiantza eskainiko duena.**

LIDERGO POLITIKOA ETA UDAL TALDE DESBERDINEN ARTEKO ADOSTASUNA.

2016ko otsaila eta apirila bitartean egindako bileretan, programaren diseinua landu zuten lan politikorako taldearen barruan. Erabateko adostasunera iritsi ez baziren ere, onespenez bidez onartu zuten konprometitutako diru-zenbatekoa, eta haztapenarekin batera lehentasuna eman zieten bizikidetzara errazten duten proiektuei.

ZEHARKAKOTASUNA

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Udal gobernuak jakinarazi zuen programa honen aldeko konpromisoa hartu zuela, eta udal erakunde osoak horretan esku hartu beharra zuela. Udaleko zerbitzu gehienak konprometituta geratu dira, esku-hartze maila desberdinekin.

- Koordinazioa (Herritarren Parte-hartzea)
- Komunikazio-kanpainaren diseinua eta exekuzioa (Prentsa, Edukiak, Gardentasuna, Herritarren Informazioa, Ogasuna).
- Proposamenak egiteko eta Bozkatzeko erreminten diseinua (Edukiak, Herritarrei Laguntzea eta Informazioa Ematea, Sistemak eta Herritarren Parte-hartzea).
- Aholkularitzarako eta informaziorako eremuak eta zerbitzuak (Gizarte Etxeak eta H.L.B.)
- Txosten teknikoak: Eremu Publikoa, Lorategiak, Azpiegiturak, Obrak, Arkitektura, Merkataritza, IGI, Kultura, Kirola, Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntza, Teknologiak, Trafikoa, TUVISA, Udaltzaingoa, Ingurumena, Ingurumen Kudeaketa, Hirigintza, Osasun Publikoa, Gizarte Politikak, Haurrak, Adinekoak, Kalitatea, Gizarte Etxeak.
- Kreditu-erreserbaren kudeaketa: Ogasuna

3. Prozesuaren plangintza, faseen diseinu teknikoa, denboraren banaketa eta egokitzapena,

Aldatu behar izan zen planing erraz bat eta eginkizunen kronograma bat, zehaztasun handiagoarekin, prestatu zen.

•

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

PLANINGA. Aurreikusitakoaren doikuntzak eta desdoikuntzak	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	
Lan Politikorako taldearen bilera											Talde politikoekin egin beharreko lana 04/5 arte luzatu zen adostasun baten bila
Informazioa emateko eta parte-hartzea sustatzeko kanpaina											Hau, talde eragilearen betebeharrak nagusien bat izan zen
Eztabaidarako eta sorkuntzarako eremuak sustatzeko kontratazioa											04/15 proiektuen aurkezpenaren amaiera. 04/21 lehen koordinazio-bilera enpresarekin. /06/5 ebaluazio-bilera
Proposamenak aurkezteko epea											Planifikatutakora egokitu da
Sailen arteko bilera, xede hauekin: 1., proposamena teknikariei aurkeztea, 2., txosten teknikoaren jarraipena egitea eta 3., ebaluazioa egitea.											Azkenik, sailen arteko bilera, 04/20, egin da.
Teknikariek proposamenei buruzko txostenak egiteko epeak											Txostenak aurkezteko aurreikusitako epea: Uztailak 15. Azkena, abuztuaren 3an jaso zen.
Proiektuen lehentasunak finkatzera gonbidatzeko kanpaina, bozketak											Aurreikusitakora egokitu da
Proiektuen bozketak egiteko epeak											Aurreikusitakora egokitu da
2017ko aurrekontuan sartuko diren proiektuen aurkezpena											Prentsaurrekoa emaitzekin 10/11

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Ad hoc organoak egotea

Bi organo eratu dira:

- **Talde eragilea:** Informazio eta sentsibilizaziorako lanak koordinatzea izan da bere eginkizun nagusia, bai eta teknologien taldearekin bozketa egiteko erremintak prestatzea ere.

- **Kontrol-taldea:** Bertan daude Herritarren Parte-hartzerako Batzordeko Lehendakaria, Herritarren Parte-Hartzerako Zerbitzuko Zinegotzia, Gizarte Kontseiluko bi ordezkari, proposamen gehien egin duen zerbitzu bateko ordezkari tekniko bat, Parte-hartzerako Zerbitzuko teknikari bat, Parte-hartzeko buruzagitza eta Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saileko zuzendaritza. Talde honekin hiru bilera egiteko deialdiak iragarri dira, nagusiki egindakoaren inguruko kontuak emateko, kontrastatzeko eta informazioa Gizarte Kontseilura bidali dadila ahalbidetzeko.

4. Komunikazioa



a) Sentsibilizazio eta Informazio Kanpaina

2016ko apirilaren 21ean bilera bat egin zen hedabide hauekin: RNE, Onda Cero, Radio Vitoria, El correo, El Diario de Noticias, Gara, proiektu hau prentsa-erredaktoreei zuzenezuzuzenean aurkeztu ahal izateko.

Programa ezagutzera emateko materialak prestatu eta argitaratu ziren: informazio-orriak, roll-up-ak, muppy-ak, webgunea eta aurkezpen-bideoa lehen fasean, eta eskuorria, presentzia sareetan, webgunea eta bozketa-prozeduraren azalpenerako bideoa bigarren fasean.


Alde batera utzirik inkestek eta balorazio pertsonalek zer dioten informazio hori jaso duten/jaso nahi duten hedabideen inguruan, webgunean, bertan zintzilikatutako artxiboetan edo kanpainako bideoetan izandako sarrerak aztertu ditugu eta emaitza hauek topatu ditugu:

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa



Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Aurrekontuarekin loturik webgunean egindako kontsultak



Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

“Partaidetza-prozesuak” egindako guztiak biltzen dituen web orria da; web orri horretatik [“Hobetuz”](#) webgunean sar gaitzke, eta horixe izan da bisitatuena, [proiektu bozkatuenei buruzko informazioa](#) bilduz. [Aurrekontuari buruz egindako informazio-orria](#) ere jaso dugu, alderaketa egiteko eta biekin zerikusia duelako.

b) Udal aurrekontuari eta horren prestakuntzari buruzko Informazioa eta Heziketa

Diseinu-fasean, herritarrei udal aurrekontuaren inguruko informazioa eta heziketa eman beharra zegoela aurreikusten zen prozesuan. Gizarte-etxeen aholkularitzarekin ahalegin bat egin zen, baina 171 pertsonak prozesu horretan parte hartzeko aholkularitza eskatu bazuten ere, proposamenak aurkeztuz, ez zuten erantzun positiborik jaso aurrekontua ezagutzeko tailerretan parte hartzearekin loturik.

Halaber, Udal aurrekontuari buruzko datuak beste era batera ezagutzera emateko beharra zegoela aipatu zuten, herritarrek open data bidez edo bistaratzeen bidez aurrekontuari buruzko datuak kontsultatu ahal izateko, formatu eraginkorragoetan edo erakargarriagoetan. Webgunean aurrekontuari buruzko informazioa errazago eskuratu ahal izateko ahalegin bat egin da.

c) Gizarte-etxeetan soberan geratu diren eskuorrien jarraipen bat egin da, beste edizio batzuetan argitalpen kopurua hobeto neurtzeko:

Argitaratu ziren 5000tik 500 eskuorri soberan geratu direla kalkulatu da, eta beraz, hurrengo baterako, % 10 gutxiago argitaratu behar da, eta gizarte-etxe bakoitzean dagoen eskaeraren arabera egingo da banaketa.

5. Programan izandako partaidetza zenbakietan

1. Fasea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gizarte Etxeetako aholkularitza-standa	76	95	171
Proposamen-egileak	61	62	123
N.A.N. duten zerrenden bitartez proposamenei babesa adierazi dieten pertsonak			500
3. Fasea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Proiektuen erakusketa	115	84	199
Standa Andre Maria Zuriaren plazan	75	75	150
Bozketa	1010	1233	2243
Webguneko kontsultak			
Guztira, ebaluazioan parte hartuko duten pertsonen zain.	1337 % 46,3	1549 % 53,7	3.386

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Bozkatu duen pertsona kopurua :

Botoak guztira

2243

Horrelako prozesuak egiten ari diren beste hiri batzuekin alderatzen badugu, eta kontuan izanik Gasteizen egiten den lehen aldia dela, biztanleria potentzialaren % 1 gainditzea emaitza positiboa dela esan liteke.

Horri gehitzen baldin badiogu bozketa-prozedura oso bermatzailea izan dela: presentziala N.A.N.aren bitartez eta on line HUT edo N.A.N. elektronikoen bitartez, emaitza horrek are balio handiagoa du.

Gainera, horrez gain adierazi behar dugu programa honetan nabarmendu beharreko ezaugarrietako bat, era bereko beste batzuetatik bereizten duena, adin guztietako pertsonen parte-hartzea dela, proposamenak aurkezten eta defendatzen diren unetik bertatik, hala nola haurrak, nerabeek, helduak eta adinekoak –nahiz eta partaidetzari buruzko datuetan ez diren sartzen Haur Zerbitzuarekin programa hau landu zuten ikasgeletako datuak (16 urtetik beherakoak)–.

Aurreikusitako beste adierazle bat generoen arteko oreka zen (sexu batek % 60 baino gehiago ez bereganatzea), eta grafikoan ikus dezakegunez, parte-hartzea orekatua izan da.

6. Parte-hartzaileen ordezkaritasun sozio-demografikoa

Prozesua aztertzeko beste faktoreetako bat bozkatu duten pertsonen dibertsitatea da.

Biztanleria sexuaren eta adinaren arabera Gasteizen				MVGH bozkatu duten pertsonak eta % 1eko erreferentzia sexuaren eta adinaren arabera					
ADINA	gizonak	emakumeak	guztira	gizonak	% 1	emakumeak	% 1	Guztira Adinaren arabera	% 1
<25	10511	10166	20677					104	206
25 eta 60 artean	63866	64444	128310					1692	1283
>60	40106	33697	73803	1.010	1144	1233	1084	447	738
								2.243	2227

Marroiz MVGHren datuak nabarmendu ditugu, eta **beltzez erroldatutako biztanleriaren datuak**, emaitza horiek potentzialki bozkatu dezakeen biztanleriarekin alderatzeko (Gasteizen erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoak). Ikus dezakegunez, doi-doi % 1 gainditu da, eta 25 urtetik beherakoak eta 60 urtetik gorakoak dira proportzionalki balizko boto-emaitze kopuru osoarekin alderatuta gutxien bozkatu duten adin-tarteak.

7. Herritarren erabakitze-marjinak

Era honetako beste programa batzuekin ez bezala, eta egiten den lehen aldia denez gero, **programaren funtzionamendu-arauak diseinatu zituzten unean bertan erabaki**

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

zituzten, hain zuzen ere, ez zutelako denbora materialik izan herritarrei ezagutzera emateko zer erabaki hartu zuten irizpideei buruz, nola egin zitezkeen proposamenak eta nork egin zitzakeen, zer eremuri buruz egin zitzaketen proposamenak, lehenetsi beharreko gaiak, gehieneko kostua, araudia eta abar.

Prozesu mota jakin bat proposatu da, herritarrek premien inguruko hausnarketak egitea helburutzat duena, eta hiria arlo guztietan nola hobetu daitekeen ahaleginduko dena.

Eta beste proiektu batzuei buruzko ezagutza sustatzearen, bost eremutan banatu ziren, eta **hirutan bakoitzean proiektu bat bakarrik bozkatzeko** baldintza ezarri zen, eta horren ondorioz, pertsona batzuek zailtasunak izan dituzte bozkatzeko, beren lehenetsunak eremu batean zeudelako eta bertako proiektu baten alde bakarrik egin ahal izan dutelako. Ezinbestekoa da baldintza hori etorkizunean berrikustea.

Berrikusi beharreko beste gai bat **bizikidetzaz errazten duten proiektuei lehenetsuna ematearena** da. Berez, gauza ona da ulertzea proiektu batzuek lehenetsuna izan dezaketela, beste batzuk baino premiazkoagoak edo garrantzitsuagoak direlako, eta horrexegatik, urte honetarako hezkuntza-prozedura gisa ezarri nahi dugu “bizikidetzan hobekuntzak sustatzea”, baina irizpide desberdinak agertu dira bai txosten teknikoetan aplikatzeko orduan eta bai horren erabilgarritasunari dagokionez herritarren artean ere. Izan ere, lehenetsunak baldintzatu egin dute 15 proiektuen zerrenda, boto erreal gutxiago jaso dituzten proiektu batzuk onartu egin direlako eta beste batzuk, aldiz, tintontzian geratu direlako.

Horrek zenbait gogoeta egitera garamatza

- lehenetsunak finkatzeko bozketa bat ezartzea beharrezkoa ote den,
- nork balioetsiko duen lehenetsuna,
- eta nola aplikatu daitekeen ahalik eta modurik orekatuenean.

Proposamen-egileen kexak ere jaso dira, bozketa egin aurretik ikusi baitute bereen antzeko beste proiektu batzuk prentsan agertu direla, udalak laster egitekoak zituen proiektuen artean, eta horrek, beren iritziz, eragin bat eduki lezake bozketetan. Horrek ondorio hauetara garamatza:

- Erreminta batzuk behar ditugu udal proiektuak ezagutzea erraztuko dutenak: aurreikusitakoak, exekuzioan daudenak eta abar.
- Udal arloan gauzatzen ari diren planak, programak, zerbitzuak herritarrek eskuratzeko erraztasunak eman behar dira.
- Begi-kolpe batean (geolokalizazioa) zure auzoan, zure inguruan, zure ikastolaren aurrean egitea aurreikusita dauden proiektuak bideratu behar dira.
- Bozketa egin aurreko garaian proiektuak errespetatuko dituzten komunikazio-estrategiak definitu behar dira.

8. Parte hartzeko kanalak

Maiatzaz geroztik komunikazio-kanal desberdinak zabaldu dira herritarrekin, eta kanal horiek ahalik eta baliabide gehien bitartez ezagutarazi dituzte:

- Parte-hartzerako Zerbitzuaren **webgunean** informazioa jarri eta, beharrezkoa izan den uneetan, baita **udalaren webgunearen hasierako orrian** ere.

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

- Programari buruzko **aholkuak emateko** kanalak **gizarte-etxe guztietan**, bai goizez eta bai arratsaldez ere. Aurrekontuari buruzko tailerrak; horiei buruzko interesik ez zegoenez gero, aholkularitzarako eremu bilakatu ziren.

- Programa koordinatzen duen pertsonaren **harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa**, baita zerbitzuaren orokorra ere.

- **On line bidez nahiz presentzialki proposamenak egiteko kanalak** maiatza osoan uztaillaren 3a arte.

- **010 informaziorako telefono-bulego gisa**

9. Baliabideak

Etorkizunari begira, eta ikusirik lehen urte honetako esperientziak garbi erakutsi digula nolako garrantzia duten baliabideek eta horiei buruzko plangintza egiteak, beharrezkoa da plangintzari ahalegin bat eskaintzea.

Prozesuak eskakizun hauek izan ditu:

1. Teknikari baten lana, lanaldi osoan, eginkizun hauek bilduz:
 - Programaren eta ebaluazioaren diseinua
 - Lantalde desberdinetan programaren aurkezpena.
 - Emun enpresarekin batera aholkularitzarako kontratuaren tailerrak kudeatzea eta koordinatzea.
 - Proposamenak, proiektua, erreklamazioak, kexak kudeatzeko lanak.
 - Herritarrekin posta bidez nahiz telefono bidez komunikatzea.
 - Webgunerako testuak, eskuorriak, bideoak, inprimakiak prestatzea.
 - Onartutako proposamenen zerrendak prestatzea.
 - Esku hartzen duten sailletara eta zerbitzuetara proposamenak bidaltzea.
 - Prozesu guztian barrena telefonoz egindako kontsultei erantzutea.
 - Txosten teknikoak koordinatzea, esku hartzen duten teknikariek komunikatzea, txostenak prestatzea, proiektuen erakusketetarako koordinazio-lanak egitea.
 - Proiektuen erakusketa prestatzea, koordinatzea eta kudeatzea.
 - Fase bakoitzari buruzko txostenak prestatzea
 - Informazioa, datu-baseak, beste era bateko dokumentazioa eta abar kudeatzeko tresnak lantzea.
2. **Herritarren Parte-Hartzerako Zerbitzuko Taldearen Laguntza:** Beste sail batzuekin harremanetan jartzeko, bilerak prestatzeko, komunikazio eta zabalkunderako kudeaketak egiteko eremuak eskatzeko, proiektuen erakusketak prestatzeko eta aurkezpenen grabaziorako kudeaketa-lanak egiteko.
3. **Talde Eragilearen** lana, nagusiki komunikazioaren eta zabalkundearen alderdiak bideratzeko eta proiektuak proposatzeko eta bozkatzeko erremintak eskaintzeko (INPRIMAKIA, APLIKAZIOA).

Talde honen barruan bere laguntza eskaini dute Edukien Buruzagitzak, Herritarrentzako Informazio eta Laguntzarako Buruzagitzak, Herritarrentzako Informazio eta Laguntzarako bulegoen koordinazioak, Ogasuneko teknikari batek, prentsa-bulegoko aholkulariek, diseinatzaile grafiko batek eta Udal Zerbitzuen garapenak, Herritarren Partaidetzaren zuzendaritzarekin, Partaidetza Buruzagitzarekin eta teknikari arduradunarekin batera.


Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Beraz, egiaztatu daiteke programa honek giza baliabide espezializatu ugari eskatzen dituela, hasieratik bertatik aurreikusi eta planifikatu beharrekoak. Halaber, horien antolamendua aurreikusi beharra dago egutegian, giza baliabideen dedikazio berezi bat eskatzen duten Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuaren beste eginkizun batzuei gainjarri ez dakien.

Kostu ekonomikoari dagokionez:

- Prozesuaren kostu osoa (ebaluazio-kostuak barneratu gabe) **48.220 euro** izan da.

Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz programak dituen kostuen banaketa:



10. Pluralismoa: prozesuan ordezkaturik dauden taldeen era askotako interesak eta antolamendu mailakoak

Aurreko programa batzuetan (Zure Auzoa Hobetuz, Aurrekontuen prozesuak, partaidetza-prozesuak) eta tradizioz Herritarren Parte-hartzerako sisteman, elkarreterara mugatua zegoen parte hartzeko aukera, herritarrek parte hartzeko eredu horren arabera horiek baitziren eragile bakarrak organoetan, prozesuetan eta abarretan.

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Parte-hartzea norbanakoei edo interesgune baten inguruan antolatutako pertsoneri ere zabalduz proposatu zuten prozesuaren diseinua. Parte-hartzeari buruzko datuetan egiaztatu ahal izan dugunez, era guztietako proposamenak eta botazioak jaso dira horren barruan (Gizon-emakumeak, haurrak, nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak, migratzaileak), era askotako interesak dituztenak (ingurumenetik hasi eta ekologia, iraunkortasuna, ibilerraztasuna, mugikortasuna, sentsibilizazioa eta abar).

Aurrerago egiaztatu eta ebaluatu beharreko alderdi bat orain arte parte hartu izan duten kolektiboen, erakundeen eta elkarteen parte-hartzea da.

20 elkartek parte hartu dute elkarte gisa “Mejorando.Vitoria-Gasteiz Hobetuz” programan. Hau da, gehiago izan dira bere izenean parte hartu duten pertsonak, premia edo interesgune jakin batzuen inguruan.

11. Aurrekontuaren heziketa-ahalmena, herritarren partaidetza-kulturan duen eragina

Azkenik, aztertu behar duguna da nolako eragina duen aurrekontuak **herritarren partaidetza-kulturan**:

Prozesua aurkezteko orduan lantzen zuten lehen alderdia **elkarlanean aritzeko asmoa zen, arlo kolektiboa, udalerrria hobetzen laguntzeko gogoa**, interes partikularrak alde batera utzirik. **Iortu dute kolektibotasuna buruan izanik proposamenak egitea eta bozkatzea?**

Aurrekontu-prozesua **“zuzeneko demokrazia” eredu** bat da, erabaki politikoak hartzeko orduan (aurrekontua) herritarren inplikazioa bilatzen duena, erabaki-hartzaile publikoei premia batzuk eta lehentasun batzuk adieraziz.

12. Beste adierazle batzuk

Adierazleak:

Udalbatzak beharrezko diru-zenbatekoa erreserbatzea

– **3 milioi euro.**

– **Erraztasuna kreditu-erreserbaren prozeduran**

– **Udal sail guztiek proiektuan esku har dezatela sustatzea**

Udalbatzaren gehiengoak konpromisoa hartzea proiektuari eman beharreko laguntzan.

– **Lan politikorako taldean laguntzea**

– **Proiektuari babesa emateko adierazpen publiko bateratua.**

– **Adierazpen publikoetan parte-hartzea ez da erreminta politiko gisa erabiltzen**

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa

Proposamen-egile gisa parte hartu duen pertsona kopurua ≥ 200 proposamen/ 203 proposamen
 Proiektuen bozketan parte hartu duen pertsona kopurua ≥ 2800 bozketak/ 2.243 boto-emaile desberdin
 Parte hartu duen pertsona kopurua ≥ 3000 Pertsona/ 3.386 parte-hartze

Sexuen araberako oreka parte hartu duten pertsonen artean

_ sexurik ez > % 69 Adinen oreka / Gizonak 1337, % 46,3 eta Emakumeak 1.549, % 53,7

_ parte-hartzaileak adin-tarte guztietan, gazteak, haurrak, adinekoak, helduak eta abar
 DBHko zenbait talde, Miguel de Cervantes ikastetxeko lehen hezkuntzako ikasgela bat,
 nerabeak, gazteak, migratzaileak, adinekoak eta abar.

- Abian jartzen/gauzatzen den proiektu kop:	Herritarrek proposatutako 6 proiektu gutxienez abian jartzea	14 proiektu erabat gauzatu dira eta 15garrenaren zati bat
- Parte-hartzaileek egindako proposamenen kopurua eta kalitatea	Egokitasun teknikoa duten proposamenen kop./aurkeztutako proposamen kop > 0,75	0,33
- Parte-hartzaileek egindako proposamenen kopurua eta kalitatea	lehtasunekin loturiko proiektuen %:	- hautatutako 15 proiektuetatik 11 - teknikoki bideragarritzat jo ziren 67etatik 24

Proposamenak egiten diren askotariko eremuak	Eremu orokor guztietako proposamenak	Eremuen arabera sailkatuz gero: <ul style="list-style-type: none"> ▪ A eremukoak 5, Vitoria-Gasteiz Green ▪ B eremukoak 5, Aisialdi eta topaketarako eremuak ▪ D eremuko 2, Vitoria-Gasteiz seguruagoa ▪ E eremukoak 1, Heziketa eta sentsibilizazioa ▪ F eremukoak 2, Gasteiz etengabe ari da eraberritzen
--	--------------------------------------	--

Programa “Mejorando VITORIA-GASTEIZ Hobetuz” Programa